

## 5. UD-FINANTZA EGOEREN AZTERKETA

### 1. BALANTZEAREN SAILKAPENA ONDARE MASETAN

Analisi finantzarioaren oinarria enpresaren balantzea da, ondare-masen arabera sailkatuta. Honelako balantze tipiko bat izan liteke:


| BALANTZE SINPLIFIKATUA |                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                           |                                                                                                                                                                       |
|------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| AKTIBOA                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | ONDARE GARBIA ETA PASIBOA |                                                                                                                                                                       |
| EZ KORRONTEA           | <b>IBILGETUA:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Eraikinak</li><li>- Makineria</li><li>- Altzariak</li><li>- Informatika</li><li>Prozesurako Ekipoak (IPE)</li><li>- Garraio-elementua ...</li></ul>                                                                                                 | ONDARE GARBIA             | <ul style="list-style-type: none"><li>- Kapital Soziala</li><li>- Erreserbak</li></ul>                                                                                |
|                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | PASIBO EZ KORRONTEA       | <b>Epe luzeko zorrak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Hartzekodun ez korronteak</li><li>- Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak</li></ul>               |
| KORRONTEA              | <b>Izakinak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Salgaiak</li></ul> <b>Bihurgarria:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Bezeroak</li><li>- Kobratzeko Efektuak</li><li>- Zordunak ...</li></ul> <b>Erabilgarria:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Bankua</li><li>- Kutxa</li></ul> | PASIBO KORRONTEA          | <b>Epe laburreko zorrak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>- Hornitzaileak</li><li>- Ordaintzeko efektuak</li><li>- Hartzekodunak</li><li>- Ogasuna</li></ul> |

### 2. MANIOBRA FUNTSA


Beste kontzeptu garrantzitsua **manioBRA funtsa** da.

ManioBRA-funtsa epe laburreko inbertsioen zati bat finantzatzen duten enpresaren epe luzeko baliabideak dira. Kobrantzen eta ordainketen arteko desfasea saihesteko, aktibo korronteak pasibo korronteak baino handiagoa izan behar du, hau da, manioBRA-funtsak positiboa izan behar du.


**MF > 0** → OREKA FINANTZARIOA:



**MF = 0** → ARRISKU FINANTZIARIKO EGOERA BATEN HASIERA:



**MF < 0** → DESOREKA FINANTZIARIKO EGOERA:



**Maniobra funtsa (MF) = Aktibo korrontea (AK) – Pasibo korrontea (PK)**

**Maniobra funtsa (MF) = Ondare Garbia (oG) + Pasibo ez Korrontea (PEK) – Aktibo ez Korrontea (AEK)**

Enpresari maniobra funtsa positiboa izatea interesatzen zaio, hau da, Aktibo korrontea Pasibo korrontea baino handiagoa izatea.

Hau horrela da, zeren enpresaren Aktibo ez korrontea ezin da epe laburreko zorren bitartez finantzatuta egon.

Edo beste modu batez esanda, enpresak Aktibo korrontearekin ordaindu behar ditu epe laburrerako zorrak, eta gainera margen bat izan behar du, Aktibo korrontearen baliabide batzuk "finkoak" direlako. Margen hori da maniobra funtsa.

### ADIBIDEA: Alfa enpresaren balantzea 2020/12/31ean:

| AKTIBOA                                          |                | ONDARE GARBIA ETA PASIBOA                        |                |
|--------------------------------------------------|----------------|--------------------------------------------------|----------------|
| <b>AKTIBO EZ KORRONTEA</b>                       | <b>220.000</b> | <b>ONDARE GARBIA</b>                             | <b>231.000</b> |
| (202) Administrazio emakinak                     | 20.000         | (100) Kapital Soziala                            | 187.000        |
| (210) Lurrak eta Ondasun Naturalak               | 30.000         | (11) Erreserbak                                  | 42.500         |
| (211) Eraikuntzak                                | 40.000         | (121) Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak   | (1.000)        |
| (213) Makinaria                                  | 20.000         | (129) Ekitaldiko emaitza                         | 2.500          |
| (216) Altzariak                                  | 10.000         | <b>PASIBO EZ KORRONTEA</b>                       | <b>15.000</b>  |
| (218) Garraio-elementuak                         | 20.000         | (170) Kreditu erakundeekiko epe luzeko zorrak    | 15.000         |
| (251) Epe luzeko zorra adierazten duten baloreak | 40.000         | <b>PASIBO KORRONTEA</b>                          | <b>4.000</b>   |
| (252) Epe luzeko hartzekoak (créditos)           | 40.000         | (400) Hornitzaileak                              | 3.100          |
|                                                  |                | (520) Kreditu erakundeekiko epe laburreko zorrak | 900            |
| <b>AKTIBO KORRONTEA</b>                          | <b>30.000</b>  |                                                  |                |
| <b><u>Izakinak</u></b>                           | <b>5.000</b>   |                                                  |                |
| (300) Salgaiak                                   | 5.000          |                                                  |                |
|                                                  |                |                                                  |                |
| <b><u>Bihurgarria</u></b>                        | <b>25.000</b>  |                                                  |                |
| (430) Bezeroak                                   | 2.500          |                                                  |                |
| (542) Epe laburreko hartzekoak                   | 12.500         |                                                  |                |
| <b><u>Erabilgarria</u></b>                       | <b>10.000</b>  |                                                  |                |
| (570) Kutxa                                      | 3.000          |                                                  |                |
| (572) Banku k/k                                  | 7.000          |                                                  |                |
| <b>AKTIBO GUZTIRA</b>                            | <b>250.000</b> | <b>O. GARBIA ETA P GUZTIRA</b>                   | <b>250.000</b> |

Kalkulatu eta interpretatu maniobra funtsa:

#### Ebazpena

Maniobra funtsa = Aktibo korrontea – Pasibo korrontea

MF = 30.000 – 4.000 = 26.000 € > 0 ➔ **Positiboa**

Enpresak epe laburreko betebeharrei aurre egin diezaieke. Horrek esan nahi du enpresak nahiko aktibo korrontea duela (30.000 €), diru bihur daitekeena, bere pasibo korronteari, hau da, zor hurbilenei (4.000 €) aurre egiteko eta gainera soberakinak dituela (26.000 €) epe luzeko zorren zati bati aurre egiteko.

## Ariketak

### 1. Ariketa. Kalkulatu eta interpretatu maniobra funtsa:

| AKTIBOA             |         | ONDARE GARBIA ETA PASIBOA |         |
|---------------------|---------|---------------------------|---------|
| AKTIBO EZ KORRONTEA | 120.000 | ONDARE GARBIA             | 70.000  |
| AKTIBO KORRONTEA    | 100.000 | PASIBO EZ KORRONTEA       | 20.000  |
|                     |         | PASIBO KORRONTEA          | 130.000 |
| AKTIBO GUZTIRA      | 220.000 | O. GARBIA ETA P GUZTIRA   | 220.000 |

### 2. Ariketa. XXX-1 Enpresak bere Egoera Balantzean honako kontu eta saldoak azaltzen ditu:

|                                          |             |
|------------------------------------------|-------------|
| (211) Eraikuntzak                        | 14.137,93 € |
| (216) Altzariak                          | 3.250,00 €  |
| (219) Beste inbertsioak (Aire egokitua)  | 1.293,10 €  |
| (300) Izakinak                           | 600,00 €    |
| (217) Informazioa proz. ekipamenduak     | 3.800,00 €  |
| (260) Epe luzera eratutako fiantzak      | 3.410,00 €  |
| (100) Kapital soziala                    | ¿ ?€        |
| (520) E/lab.zorrak                       | 10.418,34€  |
| (170) E/Luz. zorrak                      | 10.418,33€  |
| (214) Tresneria                          | 1.379,31 €  |
| (572) Bankuak eta kred.erak. ageriko k/k | 13.803,00 € |

**Balantzea osatu ondare-masetan bereiziz, eta maniobra-funtsa kalkulatu eta komentatu emaitza.**

### 3. Ariketa. XXX-2 Enpresak bere Egoera Balantzean honako kontu eta saldoak

|                          |             |
|--------------------------|-------------|
| (216) Altzariak          | 4.000,00 €  |
| (100) Kapital Soziala    | ¿ ? €       |
| (213) Makinaria          | 10.000,00 € |
| (129) Ekitaldiko emaitza | 20.000,00 € |
| (400) Hornitzaileak      | 3.000,00 €  |
| (300) Salgaiak           | 500,00 €    |

|                           |             |
|---------------------------|-------------|
| (430) Bezeroak            | 3.000,00 €  |
| (170) E/luz. zorrak       | 3.000,00 €  |
| (11) Erreserbak           | 1.000,00 €  |
| (572) Bankuak k/k         | 10.000,00 € |
| (570) Kutxa               | 500,00 €    |
| (520) E/lab. zorrak       | 2.000,00 €  |
| (281) Amortizazio metatua | 9.000,00 €  |
| (211) Eraikuntzak         | 41.000,00 € |

**Balantzea osatu ondare-masetan bereiziz, eta maniobra-funtsa kalkulatu eta komentatu emaitza.**

**4. Ariketa.** XXX-3 Enpresak bere Egoera Balantzean honako kontu eta saldoak azaltzen ditu:

|                                       |          |
|---------------------------------------|----------|
| (11) Erreserbak                       | 20.000   |
| (211) Eraikuntzak                     | 140.000  |
| (300) Salgaiak                        | 8.000    |
| (570) Kutxa                           | 4.000    |
| (572) Bankuak k/k                     | 8.000,00 |
| (213) Makinaria                       | 62.000   |
| (520) E/lab. maileguak                | 46.000   |
| (430) Bezeroak                        | 20.000   |
| (170) E/luz. maileguak                | 50.000   |
| (100) Kapital soziala                 | ????     |
| (400) Hornitzaileak                   | 160.000  |
| (210) Lurrak                          | 30.000   |
| (217) Inform.proz.ekipamenduak        | 30.000   |
| (171) E/Luz zorrak                    | 14.000   |
| (431) Kobratzeko merkat. efektuak     | 6.000    |
| (173) Ibilg. Hornitzaileak epe/luzea. | 12.000   |

**Balantzea osatu ondare-masetan bereiziz, eta maniobra-funtsa kalkulatu eta aztertu emaitza.**